

**TXOSTENA
MEMORIA
MEMOIRE
2023**



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

**TXOSTENA
MEMORIA
MEMOIRE
2023**



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

www.eusko-ikaskuntza.eus

EUSKO IKASKUNTZA

Memoria 2023 / Eusko Ikaskuntza. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2024. – 124 or. ; 23 cm.

ISSN: 0213-8662

1. Eusko Ikaskuntza I. Tit.

06 Eusko Ikaskuntza

Erakunde hauen babesarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioa.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES - BASQUE STUDIES SOCIETY

Bergara, 19. 20005 Donostia

www.eusko-ikaskuntza.eus e-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

Lege Gordailua: SS – 0512/04

Fotokonposaketa: Belén Moreno

Inprimaketa: Fasprint (Donostia)

Aurkibidea

Índice

Index

05	
Aurkezpena	45
06	
Sarrera	46
08	
Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa	48
22	
Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua	62
24	
Beste proiektu eta ekimen batzuk	64
28	
Sariak	68
30	
Zabalkundea	70
36	
Erakundea	74
44	
Datu ekonomikoak	80

Presentación	45
Introducción	46
Actividad científica de Eusko Ikaskuntza	48
XIX Congreso de Eusko Ikaskuntza	62
Otros proyectos e iniciativas	64
Premios	68
Difusión	70
La Institución	74
Datos económicos	80

Présentation	85
Introduction	86
L'activité scientifique d'Eusko Ikaskuntza	88
XIX ^e Congrès des Études Basques	102
Autres projets et initiatives	104
Prix	108
Diffusion	110
L'Institution	114
Données économiques	120

| 2023 TXOSTENA





Funtzio eta balio bikoitza du urteko txostenak gure erakundearentzat: alde batetik, urte osoko jardueraren berri ematen digu; oraingo honetan, 2023koarena. Bestetik, talaia batetik begiratzearren antzekoa da Txosten bakoitza, aukera ematen baitu egindako bideari begiratu eta indarrak berritzeko, euskal gizartearen garapen kulturala eta zientifiko sustatzeko gure ekinean aurrera egiteko.

Iragan ekitaldian, heldutasun-maila handia lortu dute Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren ondoren abian jarritako ikerkuntza eta gizarte berrikuntzako zenbait proiektuk. Bost urte eta gero, Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan programak jasotako ondorioak eta proposamenak aurkeztu ditu. Hezkuntza egitasmoari dagokionean, eta gai korapilatsua izan arren, aurrera egin da eragileen eta lurraldeen artean elkarritzeta- eta adostasun-guneak sortzeko ahaleginean. Euroeskualde Atlantiarreko gazteei ere ahotsa eman ziae mugaz gaindiko egitasmo baten bidez, euren iritzia, kritikak eta beharrak adieraz ditzaten, eta geroari ekiteko prestatu gaitezen, bizitzeko, harremaketarako eta kontsumitzeko modu berriak bilatuz. Zeregin horretan, oso emankorrapak izan dira GizarteLAB gizarte berrikuntzako programak eskaini dituen emaitzak. Lurralde Orekari buruzko programak, berriz, Herri Txikien Akademiaren eraketa ekarri du. Eta ezin aipatu gabe utzi, bestalde, Eskubide Kulturalen eta partaidetza- zein gobernantza-politiken inguruko proiektuak eta Euskal nortasuna(k) XXI. mendeari begira delakoak egindako ekarpen esanguratsuak.

Programa horien guztiengaineko edukiak barnebilduko ditu 2024ko udazkenean Gasteizen egiteko den Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuak. Ziurgabetasuna nagusi den une historiko honetan, honako hau proposatuko du Kongresuak: garai berriek dakarzkiguten erronkei aurre egiteko moduak aztertu, birformulatu eta prestatzeko proposamenak. Eredu sozioekonomikoa eta jasangarritasuna, gizarte-kohesioa eta Euskal Herriaren lurralte-antolamendua, horra zein diren erronka nagusiak.

Gure erakundearen posizionamendu estrategikoari dagokionez, berriz, erreferentziazenbait erakunderekiko lankidetza-lerroak prestatu ditugu, elkarlanerako hitzarmenen bidez. Bazkideen partehartzea, eduki zein proposamenen gizarteratzea eta finantza egonkortasuna ere helburu izan ditu gure erakundeak 2023an.

Ezinezkoa zatekeen lan hori guztia aurrera eramatea Eusko Ikaskuntzako kide zaretenon partaidetzarik eta konpromisorik gabe. Eskerrik asko, beraz, denoi!

**Ana Urkiza Ibaibarriaga
Lehendakaria**



SARRERA

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aldundien ekimenez. Erakunde zientifiko-kultural gisa aitortua dago euskal eremu osoan eta zuzeneko harremana du bere inguruko administrazio guztiekin. Euskal Herriko gizarteak eta lurralteek planteatutako etorkizuneko erronkei erantzun bateratzaleak eta berritzaleak eskaintzeko sortu zen, gizarte- eta lurralte-kohesioa lortzea helburu zuela.

Mandatu hori erabat indarrean dago oraindik, gaur egungo gizarte moderno eta konplexuaren behar eta eskaera berrietara egokituta, jakina. Eusko Ikaskuntzak hausnarketa partekatua sustatzen du, eta, horretarako, ezagutza eta adimen kolektiboa aktibatzen ditu. Izan ere, gizartea ahalduntzen du, aipatutako erronkei erantzun globalak eta integratzaileak eskaintzeko, kontuan hartuta lurraldeen berezitasuna eta aniztasuna, genero-ikuspuntu eta independentzia ideologikoa. Herritar, erakunde, eragile eta adituen artean zubi-lana eginez, gure gizartearen etorkizuna irudikatzen du, eta aurrea

hartzen saiatzen. Errealitate berriak behatzeko, ikertzeko, esperimentatzeko eta gizarteratzeko programak lantzen ditu; erronkak identifikatzen ditu; beharrizan sozialak aztertzen ditu, eta, horrekin guztiarekin, **proposamen berritzaleak eta aurreratuak** prestatzen ditu.

Egun, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko (2018an egin zen, erakundearen mendeurrenaren urtean, hain zuzen) lanetik ateratako Liburu Zuria erreferentziatzat hartuta, Euskal Komunitate Globalarentzat oinarritzkoak diren eta funtsezko balioa duten alderdiei buruzko proiektuak sustatzen ari da Eusko Ikaskuntza.

Helburu horietan sakontzen lagundi digu 2023an garatutako Kudeaketa Planak.



Oinarrizko printzipoak

- Diziplinartekotasuna
- Lurraldeen arteko lotura
- Herritarrekiko harremanak
- Belaunaldien arteko batasuna
- Erakundeen arteko lankidetza
- Euskararen erabilera bermatzea
- Genero-ikuspegia
- Independentzia ideologikoa
- Nazioartekotzea

Eusko Ikaskuntzaren ezaugarriak

Bere ezaugarri eta berezitasunei esker, Eusko Ikaskuntzak kokagune pribilegiatua du euskal ekosistema zientifiko eta kulturalean, eta posizio horretatik laguntzen du gure gizartearen etorkizuna eraikitzen:

- Gure herriaren garapenerako **estrategikoak diren gaiak** lantzen ditu; horretarako, **agenda propia** zehaztu eta kudeatzen du.

- **Kalitatezko egitasmoak** garatzen ditu; lortzen dituen emaitzek eta egiten dituen proposamenek oinarri akademiko-zientifiko sendoak eta kontrastatuak dituzte.
- **Ikerketa-metodologia aurreratuak** erabiltzen ditu, etorkizuna prestatzeko edota trantsizioak kudeatzeko beren-beregi prestatutakoak.
- Helburutzat du egitasmoak prestatzeko fase guztiak **modu integratuan** antolatzea: **behaketa + ikerketa + experimentazioa + sozializazioa**.
- Ikerketa eta proposamenak interes komunera bideratzen dira, sozializazio edo prestakuntza bidez, **hartzialeak ahalduntzeko**.
- **Herri-ikuspegia da bere jarduketen ardatz.** Erreferentea da euskal lurralde guztiak hartzen dituzten eta integrazioa helburu duten egitasmorokorrerarako.
- **Harreman-sare zabala** eta parte hartzeko eredu irekia ditu indargune nagusi.
- **Lankidetzan aritzeko gaitasuna** du, eta ikuspegi plurala bermatzen du.



EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUERA ZIENTIFIKOA

Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoak euskal gizartearen beharrizan sozialei erantzuten die, eta ikuspegi orokorra duten epe luzerako politika publikoak bideratzen laguntzen du. Horretarako, gizarte zibilaren adimen kolektiboa aktibatzen du, iraultza teknologiko globalaren testuinguruan etorkizun posible eta desiragarriak bistaratzu.

XXI. mendeko errealtitateak eta beharrizanak kontuan hartuta, Eusko Ikaskuntzak egokitua eta eguneratu egiten du 1918an bere sorrera eragin zuen misioa; hau da, **garapen soziala, ekonomikoa eta kulturala** sustatzeko tresna estrategikoak eta irismen handikoak eskaintzea. Erakunde publikoekin, eragile politiko eta sozialekin eta herritarrekin lankidetza estua ezarrita, **gizarte-berrikuntza** oinarritzko zutabe du gizartearen, herritarren eta lurraldeen ongizatea eta haien ahalmen guztien garapen jasangarria lortzeko.

Bere jarduera zientifikoak oinarri hauek ditu, labur azalduta:

- **Pentsamendu ireki**, plural eta independenterako **guneak sortzen** ditu euskal gizartearen testuinguruan eta eremu globalean.
- Behaketatik abiatuta, **ezagutza aplikatuaren azterketa, ikerketa eta sustapena bultzatzen ditu**.
- Gizartearen erronka estrategikoeng inguruko analisia eta hausnarketa sustatzen ditu eta **erantzun berritzaleak eskaini**. Euskal Herria gizartetik abiatuta eta gizartearekin bat eginda eraldatzea ahalbidetzen du.
- Gizarte-sarearen antolaketa katalizatzen du, **kohesioa sustatzeko**.
- Berdintasun-irizpideekin dihardu eta **belaunaldien arteko** lana sustatzen du.
- Elkarlanean aritzen da erakunde eta elkarteekin **jakintza-sareak** sortzeko.
- Hainbat komunikazio- eta zabalkunde-euskarri erabiltzen ditu, **sortutako ezagutzaren sozializazioa** bermatzeko.



Irtenbideak aztertzea, proposamenak prestatzea eta interes komuneko ekimenak sustatzea dira Euskal Komunitate Globalaren zerbitzura jartzen dituen lanerako programen ardatzak, betiere hainbat ikuspegia eta planteamendu aintzat hartuta eta partaidetza zabal eta anitza bermatuta.

Arlo estrategiko bakoitzean kalitate zientifikoak eta bikaintasuna bermatzen du Ikerketa Egitasmo Batzordeak (IEB), zeina kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratzen diren barne-eragileek eta kasuan kasuko arloan ibilbide ezaguna duten kanpoko profesionalek osatzen duten. IEBn parte hartzen dute, halaber, Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritzak eta Kontseilu Errektoreko hiru ordezkariak.

Ekitaldi honetan, “Herri Txikien Akademia” proiektua evaluatu eta onartu du batzorde horrek.

Proiektu estrategikoak

Bederatzi lan-programa jorratu ditu gure erakundeak 2023an:


- Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan
- Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu
- Gazteak Mugaz Gaindi
- GizarteLAB: trantsizioak bultzatzuz
- Hezkuntza-sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen
- Eskubide kulturalak: parte-hartze eta gobernantzarako politikak
- Herri Txikien Akademia
- Nafarren arteko balio partekatuak
- Ongizate-ereduak Euskal Herrian

Eusko Ikaskuntzak garatutako proiektu horiek guztiak bat datozen Nazio Batuen esparruan ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH), eta, zehazkiago, 2030 Agendarekin; izan ere, Agenda horrek finkatzen ditu eragileen artean lortu beharreko helburuak, herritarren, erakundeen eta instituzioen arteko konpromiso globalaren testuinguruan.

Proiektu estrategikoak datuetan

Aurrez aurreko
ekitaldi kopurua

37



5.528
pertsonen
harreman-sarea

Aurrez aurreko
partaideak

1.406

586
9
811

Proiektu estrategikoak irudietan





Anitzasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan

2019an jarri zen abian Eusko Ikaskuntzaren ekimenez eta Nafarroako Foru Gobernuaren babesia izan du orduz geroztik. Bi ardatz izan ditu programa honek: batetik, bizikidetza eta anitzasuna, eta, bestetik, haien kudeaketa demokratikoa, adostutako gutxieneko premisa batzuk bilatuz.

Azalduztako kezkak eta iradokizunak bildu, eta proposamen-sorta bat prestatu zuen Eusko Ikaskuntzako Talde Eragileak, administrazioari, Nafarroako gizarteari eta alderdi politiko guztiei helarazteko.

Helburuak:

- Nafar nortasunaren elementu bateratzaile onartuenak edo herritar gehienek onartzeko aukera gehien dituztenak zehaztea.
- Nafarroako herritarren artean zatiketa edo gatazka iturri izan daitzkeen nafar nortasunaren osagaiak identifikatzea (elementu dibergenteak).
- Elementu bateratzaileak indartzeko ekimen eta foro egokienak definitzea, baita erantzukizun handiagoa izan beharko luketen erakunde, talde edo komunitateak ere.
- Desadostasunak sortzen dituzten elementuak gainditzeko eta adostasun berriak lortzeko ekintza eraginkorrenak finkatzea, talde, erakunde edo komunitate arduratsuenak definituz.

2023ko jarduerak

Desberdinaren arteko mintegia

Martxoaren 9an, proiektuko zenbait adituk eta eragilek topaketa bat egin zuten Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Talde Eragileak prestatutako proposamenak aztertzeko. Nafarroako lurrardearen anitzasuna ordezkatzen duten hainbat lagun bidali zitzaien ekitaldirako deialdia, betiere haien arteko oreka zainduz alderdi hauei zegokienez: lurraldea, generoa, nortasun nazionala, kultura, erlijioa eta ideologia. Ekarpen berritzaleak (eta kritikoak) jaso ziren mintegiko bi gai-multzotan: Konfiantza, kohesioa eta adostasuna, eta Euskara eta nortasun nazionalak.

Txostenaren aurkezpena

Ekainaren 22an aurkeztu zen Anitzasuna eta bizikidetza Nafarroan: euskara eta nazio-identitateak liburua, zeinak lan-programaren deskribapena, ondorioak eta proposamenak jasotzen dituen. Aurkezpenean izan ziren Ana Ollo –Foru Gobernuko Herritarrekiko Harremanetarako jarduneko kontseilaria–, Julen Zubalo eta Amaia Nausia –proiektuaren zuzendari zientifikoa eta arduraduna, hurrenez hurren– eta Isabel Elizalde, Eusko Ikaskuntzako Nafarroako Lehendakariordea.





Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu

Ikerketa-proiektu honek XXI. mendeko euskal herritarren nortasun kolektiboaren eraikuntzaren inguruko eztabaidea eta hausnarketarako gunea eskaini nahi du. Euskal gizartearen nahiak eta gizarteak baloratzen dituen elementua ezagutaraziz, gizarte justuago, kohesionatuago eta gizatiarrago bat eraikitzen lagundu asmoz.

2022-2024 bitartean burutzea aurreikusi duen egitasmo hau hiru fasetan gauzatzen ari da, fase bakoitzak bere helburu zehatzak izanik. Lehen fasean, gaiaren inguruan antzeman daitezkeen joerak identifikatu eta aztertu dira; bigarrenean, gaiaren ezagutzan sakontzeaz gain, etorkizunerako proposamenak egitea bilatu da; eta hirugarren fasean, jasotako proposamenen kontrastea egitea espero da. Emaitzak Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan aurkeztuko dira.

Metodologia

Gaiaren inguruko diskurtsoak aztertzeko eta etorkizunera begira baliagarriak diren ondorioak ateratzeko nagusiki, Oinarritutako Teoria edo Grounded Theory ikerketa metodoan oinarritu da.

Informazio-iturri nagusiak herriarrak izan dira: jatorri, adin, genero, ikuspuntu, ezagutza askotariko pertsonak; nortasun-gaietan adituak eta eskarmendudunak; eta baita euskal nortasun-elementua sortzen dituzten pertsonak, elkarteak, eragileak eta instituzioak ere.

Errealitatea ikuspuntu desberdinatik aztertzeko helburuarekin, informazioaren bilketa teknika desberdinak erabiliz egin da.

2023ko ekintzak

2023ko urtarrila-azaroa bitartean, eztabaidea-gaiaren eraikuntzan eta lanketan jardun dugu, hau da, jasotako informazioa ikertzen, osatzen eta kontrastatzen. Horretarako, ondorengo ekintzak burutu ditugu: Delphia, sakoneko elkarritzetak, gazteekin eztabaidea-taldeak, eta, lehen emaitzen aurkezpen eta kontrasterako lan-saiok.

Informazioa osatzeko, lau eztabaidea-talde antolatu ditugu, Baionan, Leioan, Idiazabalen eta Gasteizen. 17 eta 25 urte bitarteko 23 gaztek hartu dute parte. Emaitzen lehen kontrastea 2023ko uztailaren 6an egin genuen, Soziologia eta Zientzia Politikoaren XII. Euskal Kongresuan eta irailaren 28an Eusko Ikaskuntzak online antolatutako saio batean.

Etorkizunerako proposamenak, berriz, urriaren 27an Donostian egindako mintegi ireki batean landu genituen.

Ekintza huetan ikusi da euskal nortasunaz eztabaideatzeko eta hausnartzeko gogoa badagoela. Burututako ikerketa teknika guztietai, norbanako zein talde ekintzetan, jaso den balorazio bat izan da.



Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



Gazteak Mugaz Gaindi

Egitasmo hau Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak eta Insup Formation-ek bultzatu zuen ABEN Euroeskualdearen laguntzarekin, Euroeskualdeko gazteen artean harremanak estutzeko helbururekin, elkarren arteko harreman sozialak, ekonomikoak eta kulturalak sustatzeko.

Helburuak:

- Euroeskualdeko lurralteetako gazteen lankidetza eta ahalduntzea bultzatzea, balio partekatuak identifikatuta.
- Euroeskualdeko lurraldeen artean elkar ezagutza indartzea, lurralde-proiektu espezifikoak identifikatuta.
- Mugaren bi aldeetako gazteen arteko harremanak sustatzea.

Programa hau aurrera eramateko, GizarteLAB gizarte-berrikuntzako metodologia erabili zen, Eusko Ikaskuntzak diseinatua eta garatua. Horri esker, hainbat teknika landu ziren, hala nola, aurreiritziak iritzi bihurtzeko dinamikak, eta bizitzaren, etorkizunaren, enpatiaren, pertsonen eta abarren gaineko mapak. Gainera, prototipo azkar baten bidez, parte-hartzaleek ekintza pilotuak diseinatu zitzuten, bakoitzak bere eremuan ekimenak bultzatzeko.

2023ko jarduerak

Urtarrilaren 20an, zenbait saio egin ziren Iruñeko gazteekin elkar ezagutzeaz, aurreiritziez eta estereotipoez; otsailaren 24an, berriz, hizkuntza eta kultura partekatuaz,

Baionan; martxoaren 24an, gazteriaren ongizateari eragiten dioten faktoreez. Beran, eta apirilaren 28an, jasangarritasunaz eta trantsizio ekologikoaz Hendaian.. Eta, azkenik, maiatzaren 26an, emaitzak, ondorioak eta proposamenak azaldu zitzaizkien parte-hartzaileei, osoko bilkuraren, Irunen.

Ondorioen aurkezpena

Uztailaren 12an, Donostian, programaren ondorioak aurkezu ziren. Horien artean, azpimarratzeko da identitate kultural partekatua dagoela, euskara eta euskal kultura funtsezko elementu direla. Euroeskualdearen ahalmen kultural, sozial eta ekonomikoaz jabetzen dira, baina oztopo administratibo eta juridikoak deitoratzen dituzte. Garraioan, eta etxebizitzan mugaren bi aldeetan dauden defizitak ere aipatzen zituzte. Parte-hartzaleek kontzientzia osoa zuten ingurumen-erronkei buruz, eta adierazi zuten ingurumena gehiago errespetatzen duen eredu-aldaketa egiten lagundu nahi dutela.

Antolatzaileen iritziz, lagungarri izan zen programa Euroeskualdeko gazteen arteko nortasun kulturala sendotzeko, gizartearen partaidetza sustatzeko eta, azkenik, ekintzailetzaren eta berrikuntzaren aldeko kultura bultzatzeko.





GizarteLAB: trantsizioak bultzatzu

GizarteLAB Eusko Ikaskuntzak diseinatu eta bultzatutako gizarte-berrikuntzako programa da, trantsizio demografikoak eta ekologikoak planteatzen dituzten erronkei eman beharreko erantzunetan aurrea hartzeko. Proiektu horrek arreta berezia jartzen du trantsio-gaitasunen garapenean eta ekimen esperimentalen diseinuan, trantsizioen agenda bat egituratzeko herriarren ikuspegitik.

Horrez gainera, tokian tokiko (hiria, herria, etab.) ahultasunak ebaluatzea, irtenbide-ereduak zehaztea eta esperientziak arian-arian ezartzea proposatzen da.

Helburuak:

Helburu orokorra da herriarrak gaitasun sozialetan trebatzea, etorkizun hurbileko erronkei aurre egin ahal izateko, eta, aldi berean, adimen kolektiboa garatzea eta erakundeekiko lankidetza-harremana hobetzea.

2023ko jarduerak

Bilbo: Euskaragaz egizu match

Apirilean eta maiatzean, euskararen inguruko iritziak eta esperientziak partekatzeko elkartu ziren 16-24 urte bitarteko zenbait gazte, guztiak ere Bizkaian bizi zirenak eta jatorriz zortzi herrialde desberdinakoa. GizarteLAB metodologia aplikatuz, gazteek euskararekiko duten jarrera hobera alda daitekeela frogatu zuen ekimenak, oztopoak eta aurreiritziak gaindituz.

Irun: endREDatau

Maiatzean, gizarte-berrikuntzako endREDatau ekimena egin zen Irunen, Eusko Ikaskuntzak eta Plaiaundi Institutuak antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Irungo Udala laguntzaile zirela. Bikoitza izan zen ekimenaren erronka, eta bi arazo izan zituzten aztergai: Irungo hirugarren sektorean belaunaldiarteko erreleboaren premia, eta udalerriko migratzaileen partaidetza baxua.

Legazpi loratzen

Esperientzia eraldatzaileak aplikatzen jarraitzen du Legazpiko Trantsizio Komunitateak. 2023an, belaunaldiarteko kohesioa eta ingurumen-sentsibilizazioa sustatzeko ekimen bat antolatu zuen. Zenbait adin-tarte eta taldetako pertsonak hartu zuten parte lantegietan, non plastikozko botilekin loreak egin zituzten. Ondoren (azaroaren 10ean), herriko zenbait txokotan «landatu» zituzten botilak, jai-giroan. Jende ugariak hartu zuen parte «landatze» ekitaldian.

Mutiloa

Urrian eta azaroan, GizarteLABek «Mutiloarrak elkar zaintzen» ekimena egin zuen Mutiloan, bi gai hauen inguruau: herriko trantsizio-ahalmen sozialak, eta belaunaldiarteko laguntza-komunitate bat sortzeko premia.



Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



Herri Txikien Akademia

Interes komunak dituzten herrien artean gogoeta bultzatzeko, ezagutza zabaltzeko eta lankidetza sortzeko gunea da Herri Txikien Akademia, Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreka lan-programaren baitan dagoena.

Hona Akademiaren xedea: partaidetza zabala sustatzea eta landa-inguruneko herritarrei eta ekintzaileei protagonismoa ematea, elkarlanean jarriz gai espezifikoak jorratzen dituztenak eta erabakitzeko ahalmena duten administrazio eta botere publikoetako ordezkariek.

Helburuak:

- Landa-ingurunearekiko eta herri txikien etorkizunarekiko kezka partekatzen duten eragileak erakartzea.
- Ezagutzak transmititu eta transferitzeko gune bat sortzea.
- Proiektuak eta esperientziak trukatzea, eta proposamen berriak prestatzea.

2023ko jarduerak

Herri txikietako errotzea

Ekimenaren xede nagusia da lotura sendoagoak eraikitzea pertsonen, familien zein jarduera ekonomikoen eta haiek errotuta dauden udalerriaren artean. Ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa lantzen ditu ikerketak, zeinak lurraldoko landa-eremuko herritarren egoera demografikoaren azterketa zehatzta egin duen, Arabako Foru Aldundiaren laguntza tarteko.

Herri txikietako tokiko merkataritza

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko udalerri txikietako merkataritza-egitura aztertzeari buru-belarri ekin dio Akademiak, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritza laguntzaile izan duelarik. Ekimenaren lehen fasearen helburua aukeratutako ingurueta merkataritzaren egungo egoera ezagutzea, eta potentzialitateak atzematea izan da. Bigarren fasean, berriz, merkatarien eta kontsumitzaileen beharrak eta eskariak jasoko dira. Datu horiez baliaturik, estrategia zehatz batzuk prestatuko dira 2.000 biztanletik beherako udalerrietan merkataritza jasangarria bultzatzeko.

Auzolangi(l)tzta: argitalpena eta ikus-entzunezkoia

Auzolanaren kulturaren inguruko esperientzia berritzale bat bultzatu du Eusko Ikaskuntzak, Tolomendi eta Huhezi Koop E. erakundeekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Auzolanean jarduteko gidaliburu praktiko bat idatzi zen, egindako lan-saioak, lantegiak eta gogoetak biltzen dituena.

Urriaren 5ean, bestalde, Auzolangiltza proiektuan buruzko dokumental bat aurkeztu zen Alegian. Iker Iriarte eta Pablo Dendaluze dira filmaren egileak.





Hezkuntza-sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen

2018an egin zen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko ondorioei jarraikiz, etorkizuneko hezkuntza-sistemari buruzko eztabaidagune bat sortzea, desadostasunak kudeatu eta adostasunak garatzen laguntzea du helburu ekimen honek. Eztabaidei esker, Euskal Herriko hezkuntza-sistemei buruz liburu zuria idatziko da.

Helburuak:

- Hezkuntzarekin lotutako arazo eta lehentasun nagusiak identifikatzea, eragileekin elkarlanean, eta haren kontzeptualizazio partekatuan sakontzea, eraldaketarako proposamenak prestatzeko.
- Esparru partekatua adostu eta eraikitza proiektua garatzeko, Euskal Herriko eragileekin eta interes-taldeekin batera.
- Lurralde eta erakunde bakoitzean garatzen diren prozesuetan lagunza ematea, garapen sinergikoak eskainita.
- Hezkuntzari buruzko hausnarketaren beharra sustatzea gizartean.

2023ko jarduerak

Udako ikastaroa

Uztailaren 19an, euskal curriculumari buruzko eztabaida egin zen, Baionan, UPV/EHUren mugaz gaindiko ikastaroak antolatuta. Saioaren izenburua: «Hezkuntza etorkizuneko jendartea kohesionatzeko tresna: euskal curriculumaren ber-irudikatzea».

Hezkuntza-sisteman euskara eta euskal kultura nola transmititu izan zen gogoetaren ardatza; bestalde, euskal curriculumaren kontzeptua berritzeak Euskal Herria kohesionatzeko eta biziberritzeko duen garrantzia ere jorratu zen.

Foroa: Etorkizuna elkarrekin eraikitzen

Euskal hezkuntza-sistemari buruzko programaren fase berri bati ekin zitzaien irailaren 30ean, Irungo Ficoban egindako foroan. Hezkuntza-etapa bakoitzari buruzko berariazko eztabaidak egin ziren, Euskal Herriaren eta sistemaren beraren gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzearen, eta etapa horiek guztiak biltzen dituen ekosistemaren definizio bateratua egiten saiatu ziren. Xedea: Euskal Herriko lurralde guztiak kontuan hartzen dituen hezkuntza-eremu bat sortzeko ekimen sistematikoak sustatzea.



Segregazioa gogoetagai

Beren agendan hezkuntza-sistemaren modernizazioa duten erakundeei lagundi nahi izan die Eusko Ikaskuntzak. Hala, 2021aren amaieran, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen arlo horretako lan-programa, eta simposio bat antolatu zuen Gasteizen, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

2022an segregazioa definitzea eta hura gainditzeko bideak marraztea itun sozial zabal eta integratzaile baten bidez, izan ziren antolatutako bi foro parte-hartzaileen helburuak.

Eusko Ikaskuntza eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako lehen foroan, «Segregazioari nola erantzun hezkuntza-sistematik» izenburuean, gizartearren askotariko iritziak jaso zituen erantzun partekatu bat emateko helburuarekin. Erantzun hauetatik laburpen-agiri batean definizioak, erronkak eta jarduera-lerroak jaso ziren. Txosten hori izan zuen oinarri bigarren jardunaldiak, non hezkuntzako profesionalek, sektore publikoko kudeatzaileek eta zenbait alorretako eragileek hartu zuten parte. «Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua. Erronkak kudeatzeko proposamenak» txostenean jaso ziren prozesuaren emaitzak.

2023ko jarduerak

Segregazioari nola erantzun hezkuntza-sistematik?

Martxoaren 4an, hezkuntza-sistemako segregazioaz aritu ziren zenbait espezialista eta gizarte-eragile Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Bilbon antolatutako jardunaldi batean. Eskola-segregazioa aztertu eta jorratu zuten topaketan, eta atzemandako erronkei aurre egiteko zenbait proposamen egin zituzten bertaratu zirenek.

Bi txosten aurkeztu ziren ekitaldian: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Xabier Bonalen «Desberdintasun sozioespazialak Euskal Herriko hezkuntzan», eta Eusko Ikaskuntzako Idoia Fernández eta Beatriz Akizuren «Segregazioaren ezaugarritze eta ulermen partekatua. Erronkak kudeatzeko proposamenak».

Ondoren, gogoeta sustatzeko zenbait gako, behar eta proposamen aurkeztu zituen Deustuko Unibertsitateko Eduardo Ruiz-Vieytes irakaslek; Juanjo Falcó, berriz, eskola-segregazioari aurre egiteko ezinbesteko elementuez jardun zen. Segregazio-mota horren aukako Kataluniako hitzarmenaren arduraduna da Falcó. Azkenik, etorkizunaz ere mintzatu ziren, Euskal Herrian gaur egun abian diren esperientziak eta jarduerak oinarri harturik.





Eskubide kulturalak: parte-hartze eta gobernantzarako politikak

2021az geroztik, programa honen helburu nagusia da politika kulturalak eraberritzeko proposamenak egitea, eskubide kulturalak bermatzeko eta gauzatzeko.

Helburuak:

- Euskal Herri osora hedatzea eskubide kulturalei buruzko eztabaidea, sakontzea politika kulturalen euskarri gisa haien duten eginkizunen azterketa, eta egokitzea euskal kulturaren egungo beharretara.
- Euskal Herriko eskubide kulturalen egoeraren diagnostikoa egitea, esplorazio-ikerketa baten bitartez.
- Gogoeta kolektiboa egitea kulturaren eginkizun eraldatzaleaz.
- Politika kultural aurreratuei buruzko jarduera orokor egokiak bilatzea eta hedatzea, eta gure herriko kultura-politikak eraberritzeko eraginkorrak diren jarduera-proposamenak biltzea.

2023ko jarduerak

Bi jardunaldi egin ziren 2023an, Iruñeko eta Bilboko udalekin elkarlanean. Txosten honetako 25. eta 26. orrialdeetan daude topaketa horiei buruzko informazioa.

Txostena

Benat Gaztelurrutiak landu zuen eskubide kulturalei buruzko txosten bat. Txostenaren oinarri, hainbat elkarrizketa erabili zituen, lurrealde guztiak eta alor askotako espezialistei eginak (historia, zuzenbidea, sorkuntza, edizioa eta antolakuntza).

Politika kulturalei buruzko nazioarteko mintegia

Azaroaren 14an, Kultur politika aurreratuen esperientziak kultur eskubideen ikuspuntutik izenburuko nazioarteko mintegia egin zen Andoingo Martin Ugalde Parkean. Eusko Ikaskuntzak antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Frantziako, Belgikako, Costa Ricako, Kolonbiako eta Brasilgo zenbait politika kultural aurreratu aztertu ziren. Ondoren, mahai-inguru bat egin zen Euskal Herriko eskubide kulturalen gainean.

Euskal artisten I. Mintegia

Urriaren 21ean, euskal artisten I. Mintegia egin zen, Oiartzunen. UEUK eta Lanartek antolatu zuten ekitaldia, eta Eusko Ikaskuntza laguntzaile izan zen. Topaketaren xedea: sistema kulturala osatzen dutenen arazoak plazaratzea, kontzientzia kolektiboa sustatzea eta barne-kohesioa indartzea.

Elkar Saria 2023

Maiatzaren 25ean, Elkar Fundazioaren Proiektuari Elkar Saria jaso zuten Ana Urkizak –Eusko Ikaskuntzako lehendakaria– eta Iker Atxak –politika kulturalei buruzko lan-programaren arduraduna–, Elkarren egoitzan, Adunan.





Nafarren arteko balio partekatuak

Eusko Ikaskuntzaren eta Nafarroako Gobernuaren lankidetza-hitzarmenaren baitan jasotzen den proiektua da. Ikerketaren helburua da Nafarroako bi hizkuntza nagusien kudeaketatik eratorritako arazo soziopolitikoak kudeatzea eta Foru Komunitateko herritar guztiak euskararen sustapenaren inguruan partekatzen dituzten balioak aurkitzea.

Zenbait galdera plazaratu dira gai horren inguruan:

- Ba al dago balio edo oinarri diskurtsibo partekaturik, Nafarroako gizartean euskara sustatzea ahalbidetzen eta herritar guztiak hizkuntza-segurtasuna bermatzentzduenik? Baiezkoa bada erantzuna, zein dira balio eta oinarri horiek?
- Euskara sustatzen duten balio eta diskurtsoetatik, zeinek dute adostasun sozialik handiena?
- Zein dira balio horien osagai-kateak?
- Nola daude banatuta gizartean balio horiek? (talde linguistikoak, adin-taldeen, generoaren, eremu soziolinguistikoak... arabera).
- Ba al dago adostasun sozial nahikorik jasotzen ez duen balio linguistiko ez-partekaturik? Zein dira nagusiak?

Helburuak:

- Identifikatzea eta aztertzea euskararen sustapena dela eta nafarrek partekatzen dituzten balioak.

Helburu partzialak:

- Identifikatzea eta aztertzea euskararen sustapena dela eta gizartean adostasunak eta desadostasunak eragiten dituzten balio eta diskurtso nagusiak.
- Balioen eta diskurtsoen gizarteko banaketa aztertzea: talde linguistikokoak (euskaldunak, eraldunak), adin-multzoka, generoak, eremu soziolinguistikokoak.

2023ko jarduerak

Azterketa kualitatiboa: talde triangeluarrak

2023an, azterketa kualitatibo bat egin da ekintzaren zati nagusi gisa, eta azterketa kuantitatiboa 2024an izango da. Talde triangeluarrak ezarri ziren, hautapen-faktoreak kontuan hartuta, hala nola adina, generoa, jatorria eta euskararen ezagutza, azaleratzen ari ziren diskurtsoak aztertzeko. Hainbat eskualdetan antolatu ziren saioak, talde espezifikoak barne, (etorkinak, gazteak, adinekoak eta Iruñean estatus sozioekonomiko handia duten pertsonak) Saioak grabatu, transkribatu eta gero diskurtsoa aztertu zuten. Prozesu osoa dokumentatu den txosten batean jaso da.





Euskal Herriko ongizate-ereduak

Proiektuaren helburua da herritar guztiak babesten dituen ongizate-eredu baten alde egitea. Euskal Herriko lurralte- zein gizarte-kohesioa sustatzen duen proiektu sozial gisa ekin behar zaio egitasmari. Egun dauzkagun hiru ongizate-ereduen arteko lankidetza bultzatzea da xedea, eta alor horretako eragileen arteko ezagutza sustatzea. Ekimenaren giltzarria, berriaz, hau da: gizartearen azterketa- eta berrikuntza-laborategi bat sortzea, ongizate-eredua, politika publikoak eta gizarterbitzuak azter ditzan. Hirugarren adinekoentzako estrategia du kohesio-elementu proiektuak, bai eta lanetik erretiratutako ondorenerako bizitza beteko ereduak garatzea ere.

Helburuak:

Hona 2023rako jarri ziren helburuak:

- Laguntza ematea adinekoen banakako, bikotekako eta taldeko bizi-proiektuei.
- Bizitza betea garatzeko ahalduntzea sustatzea.
- Zahartze-prozesuari dagozkion bizi-trantsizioetan adinekoei laguntzea.

2023ko jarduerak

60+ programa

Adinekoei erretiratutako ondorenerako trantsizioan laguntzeko, lau asteko programa bat antolatu zuten Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Sailburuordetzak. «Talantuak ez du erretiroa hartzen» izan zuen izena programak. Gasteizen eta Busturialdean egin ziren programako ekitaldiak.

Zahartze-prozesuari ikuspegi positibo batetik ekitea izan zen programaren ardatza. Horretarako, esperientzia iradokitzale eta partekatuetan murgiltzeko aukera eskaini zieten parte-hartzaleei zenbait erakunde espezializatuk. Halaber, erretiratzeko adinean daudenak trantsizio horretarako ahalduntzeko programa izan zen: nola aprobetxatu denbora ahalik eta ondoen, nola hobetu bizi-kalitatea, eta nola bihurtu erretiro-garaia esperientzia aberasgarri.





XIX. KONGRESUA

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua

2024ko urriaren 2tik 4ra da egitekoa Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua, Gasteizko Europa Kongresu Jauregian, Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous rassemble goiburuean.

Eusko Ikaskuntzaren ideiak eta funtzionamendu-printzipioak izango ditu oinarri Kongresuak:

- **Diziplinartekotasuna.** Zenbait jakintza-alorretako jendearen partaidetza sustatzea du helburu Kongresuak.
- **Lurrardearteekotasuna.** Euskal Herriko zazpi lurraldeak eta diaspora hartuko ditu kontuan.
- **Herritarren partaidetza.** Zabalik dauzka ateak jende anitzen ekarpenak jasotzeko: adituenak, unibertsitateko irakasle eta ikertzaileenak, enpresa eta erakunde publikoenak, bai eta gizarte zibilarenak ere.

- **Belaunaldiartekotasuna.** Bereziki garrantzitsua deritzogu gazteek ere jarduera eta esku-hartze aktiboa izateari, beste adin-tarteko batzuetako jendearekin batera.
- **Erakundeen arteko lankidetza.** Lankidetzarako konfiantzazko gunea eskaintzen die Kongresuak gure herriaren kohesioa bultzatzen duten guztiei.
- **Eleaniztasuna.** Euskara, gaztelania eta frantsesa dira Kongresuko hizkuntza ofizialak. Horietako edozein erabil dezakete parte-hartzaleek.
- **Genero-ikuspegia,** berriz, txertatuta dago antolakuntza-prozesuan, erabakiguneetan eta eguneroko jardunean.
- **Aniztasuna eta inpartzialtasun ideologikoa.** Aniztasun ideologikoa eta partzialtasunik eza ditu printzipio nagusietakoak gure erakundeak.
- **Nazioartekotasuna.** Euskal diasporako ordezkariek izango ditu Kongresuak, bai eta nazioarteko hizlariak eta/edo parte-hartzaleak ere.

Kongresuaren helburuak eta programa

Hona Kongresuaren xedea: kontratu sozial(ak) adostea Euskal Herriaren gizarte- eta lurraldetako kohesioa lortzeko abian jarri behar diren politika eta/edo ekimenen inguruan. Adostasun-eremu zabalk landu behar dira horretarako, eta proposamen zehatzak egin, ahalmen kolektiboak sustatz.

Eusko Ikaskuntzaren 2018ko Kongresuko ondorioak oinarri hartuta, hainbat ikerketa- eta gogoeta-lerro bultzatu ditu gure erakundeak. Eta prozesu horretan metatutako jakintzaz baliatuta, hiru alor nagusi hauetan aurrera egingo du XIX. Kongresuak:

Eredu sozioekonomiko berria eta ongizatearen gizarte (2024ko urriak 2). Bereziki, gai hauek jorratuko dira:

- Garapen ekonomikoa
- Enpleguaren iraunkortasuna eta ongizatea
- Jasangarritasuna eta belaunaldien arteko elkartasuna

Jendartea (urriak 3). Lau gai hauei buruz 2019az geroztik Eusko Ikaskuntzan eginiko gogoetak izango dira jardunaldiaren ardatza:

- Euskal nortasuna(k) XXI. mendeari begira
- Hezkuntza-sistema
- GizarteLAB. Gizarte Berrikuntzarako Esperimentazio Laborategia
- Eskubide kulturalak: partaidetza eta gobernantza-politikak

Lurralddea (urriak 4). Hiru ardatz hauek izango ditu lurraldetasunaren azterketak:

- Lurralte burujabetza gatazken kudeaketa Europaren
- Lurralte oreka. Herri txikien akademia
- Muga espazioa Euskal Herrian

Gai bakotza egokiro jorratzeko, hitzaldi-markoak emango dira Kongresuko hiru egunetan. Bestalde, partaidetza sustatzeko dinamika bereziak prestatu dira.

Kongresuko lehendakaria



Patxi Juaristi Larrinaga da Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuaren lehendakaria: Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea eta irakasle titularra Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzietako Sailean. Ikertzaile eta irakasle gonbidatu gisa jardun du Bretainia Handiko eta Estatu Batuetako zenbait unibertsitatetan. Eusko Jaurlitzako Unibertsitate Sistemako zuzendaria izan zen 2005etik 2009ra. Azterketa, artikulu eta liburu ugari argitaratu ditu honako gai hauetaz: euskal kultura eta balioak, euskara eta beste zenbait hizkuntza. Espainiako Gerra Zibila ere ikertu du. Sariei dagokienez, besteak beste hauek jaso ditu: Euskaltzaindiaren Mikel Zarate Saria (entsegua), eta Arabako Foru Aldundiaren Becerro de Bengoa.

Kartela

Berrogeita lau proposamen aurkeztu ziren Kongresurako kartela diseinatzeko lehiaketa publikora, eta Belén Moreno Zaldibar artistari esleitu zitzzion lana. Kohesioa du izenburu kartelak.



BESTE PROIEKTU ETA EKIMEN BATZUK



Artitz, Bilboko Guggenheim Museoaren Dokumentazio Zentroa

2017az geroztik, Eusko Ikaskuntzak euskararen, dokumentazioaren eta teknologiaren arloetako esperientzia eta jakintza eskaintzen dio Artitz online plataforma, hura aberasteko. Bertan, eratu zenetik Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako arte-erakusketen inguruan sortutako dokumentazioa eta eduki nagusiak euskaraz daude.

Sei erakusketa egin dira 2023an: Lynette Yiadom-Boakye, Oskar Kokoschka, Joan Miró, Yayoi Kusama, Picasso eta Gego artisten lanak ikusgai jarri zituztenak, eta Marine Hugonnierren bideoinstalazio bat Film & Video atalean.

www.guggenheim-bilbao-artitz.eus

EuskarAbentura

Egitasmo honen lehen ediziotik, Eusko Ikaskuntzak gazteek aurkezten dituzten proiektuak evaluatzen laguntzen du.

Seigarren edizioan 15 eta 17 urte bitarteko 125 gaztek hartu zuten parte, Euskal Herri osotik eta diasporatik etorriak eta errealtitate linguistiko, sozial, ekonomiko eta kultural ezberdinak dituztenak.

Mondragon Corporation-en IPDK-COFIParen Azterketa

2023an hasitako ekimen honen bidez, Mondragon Corporationen azken hiru ekitaldietako IPDK-COFIP (Hezkuntzarako eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena) aztertu nahi izan da.

Azterketa hau amaitzean, Korporazioak aldatzeko gaitasuna izan dezakeen herri erronkak zeintzuk diren eta zeinetan eragin dezakeen proposamenak aurkeztuko dira.



Udalak

Eusko Ikaskuntzak elkarlan estuan jarraitu du Euskal Herriko Udalekin. Gaur egun, udalekin egiten den lana bi arlo handitara bideratzen da: *etorkizuneko erronkei buruzko agenda propioaren garrantzia nabarmentzea eta udalerri bakoitzaren historian eta ondarean sakontzea.*

Baiona

Abuztuaren 25ean, Beñat Zintzo izan zen hizlaria *Les Socières de Zugarramurdi* izenburuko hitzaldiarekin.

Irailearen 23an *Transmisión* dokumentalaren emanaldia egin zen.

Biarritz

Otsailaren 4an, Thierry Truffaut-ek Souffler n'est pas jouer izenburua izan zuen hitzaldia eman zuen.

Maiatzaren 16an, aldiz, Jon Abril Emazte langileak gerla ondoko Euskal Herriaz aritu zen.

Uztailaren 6an banatu ziren 2022ko ekitaldiko Eusko Ikaskuntza eta Biarritzeko Udalaren arteko ikerketa-bekak. Martxan dituzten ikerketen helburuen berri labur azaldu zuten bekak eskuratu zituzten lau ikasleek, eta laguntzaren lehen saria jaso zuten. Emakumezkoak ziren lau bekadunak.

Bilbo: sinposioa

Politika kultural feministak izan zituen aztergai Bilboko Sinposioak. Urriak 19an egin zen saioa, Bilboko Udal eta Emakunde laguntzaile zirela. Euskal kultura feministaren indarguneak nabarmendu zituen foroak, bai gogoeta teorikoari bai esperientzia praktikoei dagokienez. Arreta berezia egin zitzzion kultura-proiektu estrategiko bateratu bat prestatzeko premiari.

Donibane Lohizune

Michel Etchekoparri eman zitzzion Eusko Ikaskuntza-Donibane Lohizuneko Musika Saria, ohorezko atalean. Gazte Saria, berriz, Marina Beheretcheri. Udalaren osoko bilkura aretoan banatu ziren sariak, urtarrilaren 28an.

Bestalde, bi dokumental proiektatu ziren: *Transmisión* (martxoak 31) eta *Loreak belaunetan* (maiatzak 26).

Maitena Duhaldeko abenduaren 3an bere hitzaldia eskaini zuen bi erakundeen arteko elkarlanaren ondorioz.

Hendaia

Euskal Herriaren irakurketa etnografikoa egin zuen Aitzpea Leizaola antropologoak martxoaren 14an, Pierre Lotiren idazkiak eta eleberriak oinarri hartuta, 2023an izan baitzen idazlearen heriotzaren mendeurrenena.

Azaroaren 30ean, Jon Casenave Lotiren Ramuntcho (1897) eleberria eta orduko euskal kulturaz jardun zen.

Beste proiektu eta ekimen batzuk



Iruña: Kultur kudeaketa eraldaketarako

Irailaren 20an, «Kultur kudeaketa eraldaketarako: urrats berrien bila kultur eskubideen marko batetik abiatuta» jardunaldia egin zen Iruñean. Antolatzaileak Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udalak izan ziren. Kulturaren eginkizun eraldatzaileaz, gobernantzako eta kudeaketa publikoko ereduez eta partaidetzaz jardun ziren zenbait espezialista, mahai-inguru batean. Jardunaldiaren bigarren zatian, berriz, kulturaren antolakuntzan jardunbide egokiak nola bermatu izan zuten eztabaidagai. Ekitaldi kulturalak antolatzeko protokolo bat ere aurkeztu zen jardunaldian, eta kultura-eragileekin eztabaidatu. Proiektua bultzatzen duen taldeak landu zuen protokoloa, zeinaren xedea hau baita: ekimen kulturalak inklusiboak, jasangarriak eta bidezkoak izan daitezen bermatzeko gida praktikoa egituratzea.

Ortzaitze

Ortzaitzeko Menta Liburutegian Idoia Rodriguez genero estereotipoen euskarazko irakaskuntza euskarrietaz jardun zen.

Senpere

Martxoaren 16an, mahai-inguru batean elkartu ziren pedagogo bat, zuzenbide publikoko aditu bat eta antropologo bat. Ekitaldiaren izenburua: «Muga: atzoko bizenpenak eta gaurko erronkak». Azaroaren 11n, berriz, Loreak belaunetan dokumentala aurkeztu zen eta abenduaren 7an, Transmisioa izan zen proiektatutakoa.



Sopela

Ikerketa bat egin zen Sopelaren 1931. eta 1950. urteen arteko aldi historikoa ezagutzera emateko, Bigarren Errepublikari, Gerra Zibilari eta Lehen Frankismoari dagozkien garaia, hain zuzen ere. Ikerketa Koldo Somokuetu baziak bizkaitarrak burutu zuen Ludger Meesen zuzendaritzapean.

Urepel

Uztailaren 14an, Jon Abril Olaetxek Isildutako eskuak izenburuko bere liburua aurkeztu zuen. Transmisioa dokumentalaren emanaldia irailaren 8an izan zen.

Urruña

Eusko Ikaskuntzarekiko hitzarmenaren baitan, azaroaren 18an, Gau Beltzaren tradizioen berri eman zitzaien Urruñako ikasleei eta arratsaldez, Transmisioa ikus-entzunezkoa proiektatu zen, Olentzeroaren Lagunak elkarreka Argentinara eginiko bidaiai buruzkoa.

Abenduaren 14an, Anuntxi Aranak Olentzeroz mintzatu zen antolatutako hitzaldian.



Beste erakundeekin elkarlanean

